


300 metro luzeko hirugarren errei bat egitea esleitu da, Irungo ordainlekuaren parean, Bilborako noranzkoan

Aurrekontua 432.400+BEZekoa da eta gauzatzeko epea 15 astekoa.



Bidegiko Administrazio Kontseiluak urtarrilaren 26an egindako bileran, Irungo ordainlekuaren parean, Bilborako noranzkoan, hirugarren errei bat egiteko lanen esleipena onartu du. Aurrekontua 432.399 euro+BEZekoa da eta 15 asteko exekuzio-epea izango du.


Proiektuaren helburua errei berri bat prestatzea da Bilborako noranzkoan egungo bi erreietatik hirutara handituz 300metro luzeran Irungo ordainleku nagusiko bideen zabalgunera heldu aurretik. Hirugarren erreia lortzeko, beharrezkoa izango da AP-8ko trafikoak eta Bentetako lotuneko sarrera-adarretik autobiderra sartzen direnak bereizten dituen hormigoizko hesia lekuz aldatzea. Metalezko hesiak ere desmuntatuko dira, eta euri-uren eta argiteriaren kutxetak eraitsiko dira, konfigurazio berrirako egokiak diren beste batzuekin ordeztuz.

Errei berri honi esker, gidariek mugikortasun eta ikusmen hobea izango dute, eta denbora gehiagoz jarri ahal izango dira, Bilborako noranzkoan trafikoei zerbitzua ematen dieten zazpi bide finko eta hiru itzulgarrietara modu homogeenagoan eta hobeto banatuta joateko. Gaur egun, erabiltzaileek ordainleku nagusiko erdiko bideak erabiltzen dituzte, eta eskuinaldean daudenak, berriz, gutxiagotan. Horren ondorioz, auto-ilarak areagotu egiten dira zirkulazio gehien dagoen egunetan.

Zarautz, 2024-01-26

Adjudicada la ejecución de un tercer carril de 300 metros a la altura del peaje de Irun en sentido Bilbao

El presupuesto es de 432.400+IVA con un plazo de ejecución de 15 semanas



El Consejo de Administración de Bidegi celebrado el 26 de enero, ha aprobado la adjudicación de las obras para habilitar un tercer carril a la altura del peaje troncal de Irun en sentido Bilbao. El presupuesto es de 432.399 euros+IVA con un plazo de ejecución de 15 semanas.

El proyecto tiene como objetivo habilitar un nuevo carril, ampliando de los dos actuales a tres, en un tramo de 300 metros previo al acceso a la playa de vías del peaje central de Irún en sentido Bilbao. Para obtener el tercer carril será necesario desplazar la barrera de hormigón existente que separa los tráficos de la AP-8 de los que acceden a la autopista por el ramal de entrada del enlace de Ventas. También se desmontarán las barreras metálicas y se demolerán las arquetas de pluviales y de alumbrado existentes sustituyéndolas por unas nuevas adecuadas a la nueva configuración.

La intervención permitirá una mejor movilidad y visibilidad para los conductores que podrán posicionarse con más antelación para dirigirse de modo más homogéneo y mejor repartido a cualquiera de las siete vías fijas y tres reversibles que dan servicio a los tráficos en sentido Bilbao. En la actualidad los usuarios tienden a utilizar las vías centrales del peaje troncal y las ubicadas más a la derecha son usadas con menor frecuencia lo que provoca un aumento de las retenciones durante las fechas de mayor afluencia de tráfico.